

Txillardegiri

Txillardegiren idazlanak askotan irakurri izan ditut. Beti euskeraz. baiña azkenekoan, Arzalluz'en deklarazioeri buruz dionez «sería una especie de indecencia contestar a las mismas en euskera». Itz gogorrak, benetan. Nik ba-dakit Txillardegiri k euskera benetan maite duala, euskeraren alde aalegin guztiak egiñez dabilhela, euskera bere zaiñetan daramala, barru-barruan. Nere begiramen guztia beretzat. Baiña, loraillaren 7'ko «Punto y Hora» aldizkariak dakarren bere artikulua irakurri ondoren oso minduta eta arrituta gelditu naiz; izenburua «La máscara de Arzalluz».

Ni ez naiz duin, ezta gutxiago ere, Txillardegiri rekin eztabaidan asteko. Ez noa orren atzetik, baiña neure iritzi soilla azaldu nai nuke EAJ'ri buruz egiten dituan aitopen batzuk dirala-ta. Beste esaera askoren astean dio: «... y un partido para el cual, a pesar de la sigla, lo nacional es abandonable. La lengua en concreto ...». Au ez da egia, eta ez dira ere argiak, onen antzeko esaten dituan beste gauza asko. Egia da, bai, eta negargarri, gure egunkari eta aldizkarietan oso euskera gutxi erabiltzen dugula, baita burukideen artean ere; baiña, ori, bein «Egin'en» irakurri nuanez, ain zuzen ere «El euskera desautoriza nuestro abertzalismo» artikuluan, alderdi guztietan gertatzen dan kontua da ori, bai ezkerrean ere. Nolanai ere, besteen erru eta akatsek ez dute gure jokabidea garbitzen. Au da gure pekatua eta pekatu handia, gaitia.

Ni katalunya'n asko ibillia naiz eta kanpokoek beti esan oi dute katalanek ez dutela edukaziorik (edukazio onik, noski), danak katalanez mintzatzen diralako, naiz eta euren artean izkuntza ori ez dakian bat edo beste izan. Gu, berriz, edukazio oneko jendetzat jotzen gaituzte, gure artean euskeraz ez dakian bat izatea naiko bai-da danok erderaz mintzatzeko. Batzuentzat au da edukazio ona izatea. Ondorioa?. Katalanek euren izkuntza gorde egin dute, eta bertakoek mintzatzaz gaitia, naiz kanpotar izan, urte batzuk an bizitzen daramazkutenak geienak katalanez mintzaten dira. Guk, berriz, gure euskera galdu; aundia da gure errua. Emendik ateraten dut katalanen edukazio ona dala eta gurea txarra; euren euren izkuntza erabiltzen dute ets guk izkuntza arrotza nagusitu-arazi dugu gure errian.

Txillardegiri k Xabier Arzalluz'i egiten dion salaketa ori dala-ta, azalpen bat egin bearrean naiz. Oraindik denpora asko ez dala, batzar batean, Arzalluz bera maaike zala, euskerari buruz mintzatu zan. Gogor eta garratz mintzatu ere, gaitelama eta erderari inolako lekuri eman gabe, erderari bide guztiak itxiaz; euskeraz ez zekiten batzarreko bi edo hiru lagun jaiki eta aldendu egin zituan arteraño. Negarrez irten ziran. Euskeraz ez zekitelako, beste guztiak baiña min aundiagoa izango zuten euren. Nik ez'nuan onartu Arzalluz' en jokabidea. Beraz, inolara ere ez dut amititzen Arzalluz' i euskera bost ajola zaiola esatea. Erreferendum? Berak jaingotu du ori zergatik esan duan. Gai oni buruz azkenengo «Ere k» zerbat ba-dakarrela ueste dut. Ala ere, bere adierazpenetan Arzalluz'ek argi ta garbi esaten du: «Nuestro Partido no debe dejar este tema en manos del Gobierno exclusivamente, sino debe crear un movimiento en la sociedad en favor de la difusión, práctica y uso cotidiano del euskera. Si no lo hace, y pronto, fallará en uno de sus postulados fundamentales».

Leizaola'ren deklarazioeri buruz, berriz, Leizaola beraz gero egin zuan azalpena egin bear zenduke. Beraz alakorik esan ez omen zuenez, izparlariak bere itzak oker jaso zituala gion Leizaola'k.

Eta bukaeran onela diozu: «(El PNV) es ya el enemigo principal de la causa vasca». Ori, berez gezurra da, eta ge-



zurrik aundiena gaitia. orrekin ez dut esan nai zu gezur zale zeranik. Zure maillako gizon batek gaitia du gezurren bearra izateraño setakeria.

Ni Alderdikidea naiz, nere euskera etxean ikasia da, kalean erabiltzen dudana eta aal dudala euskeraz mintzaten naiz. Alderdian mailla guztietako jendea ezagutzen dut eta argi eta garbi, zalantzarik gabe esan nezake egi osoz, danak euskaltzale benetakoak dirala, Euzkadi'rentzat euskera utsa nai luketenak. Ba-dira batzuk ez dakitenak eta inol baiña min aundiagoa euren dute, eta baita ere gutxi batzuk aalegin aundiago batekin euskera ikasiko luketenak. Beste batzuk, berriz, ikasteko garaia pasata dutenak.

Nik galdera bat egingo nioke Txillardegiri, berak erantzungo ba'lida. Nai dudana argibide ori ez dut oraindik ikusten eta ortara eldu nai nuke. Ba-dakit leenengo neurria, euskera dakigunok beti euskera utsean mintzatu bearko gendukeala; baiña zuk, zer bide, zer erabaki artuko zenuke Euzkadi guztira euskera zabaltzeko? Nik baiña obeto dakizu zenbat eta zenbat diran Euzkadi'n gure izkuntza ez dakitenak, bai Bizkaia'n eta batez ere Araba eta Nafarroa'n. Onetik gureganatu eta euskera-zaleta bearrean gera, baiña nola? Euskera ez dakitelako ez ba'ditugu bear bezala onartzen edo ta despreziazten ba'ditugu, ez ote ditugu atzeratuko eta gugandik urrutiratuko? Edo geiago, gure aurka jarriko? Arazo garrantzitsu oni buruz argibide bat eskertuko nizuke.

Barkatu, Txillardegiri, nai gabe mindu ba'zaitu.

Imanol Begiristain'ek